

**EUSKO JAURLARITZAREN DEIALDIA,
IKERTZAILE DOKTOREAK HOBETZEKO
DOKTORETZA-ONDOKO PROGRAMARAKO
LAGUNTZA BERRIAK ETA BERRIZTAPENAK
2026-2029**

Deialdiaren xedea:

Ikertzaile doktoreen hobekuntzarako 2026-2029 aldirako laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea, EAEko ezarpen-zentroetan egongo diren eta aldi baterako atzerrira joango diren ikertzaile doktoreentzat. Deialdiak barne hartzen du:

- a) 2026-2029 aldirako laguntza berriak ematea.
- b) 2023-2026 aldirako deialdian laguntza berria lortu zutenak 2026-2028 aldirako berritzea.

Laguntzaren ezaugarriak:

Gehienez 26 laguntza berri emango dira ikerketa orokorretan, eta plaza bat gordeko da % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonentzat. Desgaitasuna duten pertsonentzako plaza betetzeko hautatzeko moduko behar adina eskabide ez balego, esleitu gabeko laguntza ikerketa orokorrera bideratuko litzateke.

Gehienez 3 laguntza berri emango dira ikerketa espezifikokoaren lerroan: neutronika arloan 2, eta Hezkuntzarenean 1. Arlo espezifikoetan hautatzeko moduko behar beste eskabide ez balego, esleituko gabeko laguntzak ikerketa orokorreari gehituko litzazkieke eta 31.4 oinarrian xedatuaren arabera esleituko.

Gehienez 23 laguntza berrituko dira ikerketa orokorraren lerroan eta 1 ikerketa espezifikoarenean.

Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:

Kontratua: kontratu berriek ikertzaile-doktore izateko sarbide-kontratuen ezaugarriak izango dituzte. Kontratu hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 22. artikuluan eta indarreko lan-araudian ezarritakoaren babesean egingo da.

Kontratu hori sinatuta, ikertzaile doktoreak konpromisoa hartzen du eskusiboki jarduteko Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen Ebazpenaren bidez laguntza jaso duen ikerketa-proiektuan..

Iraupena: kontratu berriek hiru urteko iraupena izango dute, 9. oinarriko 1. apartatuan laguntza hasteko ezarritako egunetik aurrera.

Hiru urteko aldia amaitutakoan, laguntza bi urterako berritu ahalko da, berritze horretarako deialdian ezartzen diren baldintzen arabera.

60 hilabete horiek bi fasetan antolatuko dira: lehenengoa 24 hilabetekoa izango da, eta ikertzailea atzerriko ikerketa-zentro batera joango da, bere ezarpen-zentroa utzita, ikerketa-proiektu bat gauzatzeko. Bigarren fasea, berriz, 36 hilabetekoa izango da; fase horretan, ikertzailea EAEko ikerketa-talde batean sartuko da.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Eskabideak aurkezteko epea **2026ko ekainaren 19tik uztailaren 20ra** da, biak barne.

Laguntza berrien kasuan, garrantzitsua da deialdiko 21 eta 27. oinarriak arretaz irakurtzea.

Berriztapenen kasuan, ezinbestekoa da deialdiko 21 eta 35. oinarriak irakurtzea.

Hautagaiak Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa dagoen [estekaren](#) bidez egin behar du eskabidea.

Eskabide-ereduak deialdiaren III., IV. eta V. eranskinetan agertzen dira. Eskabidea bete ondoren, eskatzaileak bere burua identifikatu beharko du sinadura elektronikoaren bidez.

Eskabidearekin batera aurkeztuko den dokumentazioa bide elektronikoz baino ez da aurkeztuko.

EHUko KONPROMISO AGIRIA LORTZEKO PROZEDURA

Eskatzaileek **2026ko uztailaren 15era arte***(hori barne) izango dute dokumentu hauek aurkezteko posta elektronikoz (pre-postdoc.dgi@ehu.eus), mezuaren gaian “POSDOC deialdia Eusko Jaurlaritza” jarrita:

A) LAGUNTZA BERRIEN ESKATZAILEAK (27. oinarria):

1. **NANaren kopia.**
2. **Doktore tituluaren kopia.**
3. **Datu pertsonalen fitxa.** Eredua Ikerketa-Errektoreordetzaren webgunean.
4. **Ikerketa-proiektuaren zuzendariak sinatutako onarpen egiaztagiria.** Eredua Ikerketa-Errektoreordetzaren webgunean.

B) BERRITZEEN ESKATZAILEAK (35. oinarria):

1. **Saileko zuzendariaren eta ikerketa-proiektuko zuzendariaren onarpena.** Eredua emailaz bidaliko zaizue.
2. **Aurretiz doktoratu-ondoko kontraturik izan duenaren adierazpena.** Eredua emailaz.

*** Data horretatik aurrera ez da konpromiso agiri gehiago egingo. Beranduago jasotzen diren eskaerak, okerrak-zuzentzeko prozeduraren ondorioz atendituko dira.**

Harremanetarako**Eusko Jaurlaritza:**

- Euskal Autonomia Erkidegotik: 012
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 945 018000
- Atzeritik: 00 34 945 018000
- zientzia.ikerketa@euskadi.eus

EHU:

Pre-postdoc.dgi@ehu.eus

Informazio gehiago:

[Ikerketa-ibilbidea. Doktoretza-ondoko Programa - Unibertsitateak. Doktoretza-aurreko programa - Euskadi.eus](#)